



2019 urterantz egiteko prest

Pasa den apirilaren 6an egin genuen Bertsozale Elkarteke Batzar Nagusia Berrizen. Iazko urteari eta datorren honi begiratzeaz gain, gogoeta estrategikotik ateratako ondorioak ere azalatu ziren. 60 bazkide inguru elkartu ginen.

Trenak etorri, hustu edota bete, eta berriro ere abiatzeko tokiak izan ohi dira geltokiak. Berrizen, geltoki aldamenean dago kokatuta kultur etxe zaharra, eta han egin zuen Bertsozale Elkarteak urteroko Batzar Nagusia bazkideekin: iritsi, 2018ko egitasmoez hustu eta 2019ko proposamenez hornituta, urte berrirantz abiatu gara bagoi beteekin.

Arrate Illaro eta Aritz Zerain zuzendaritza taldeko kideek egin zieten harrera agertutako 62 bazkideei. 2018ko ekimenak azaltzeko ikus-entzunezkoa eskaini eta Xabi Igoa zuzendaritzako kideak aurkeztutako diru kontuak onartuta, aurtengoari oniritzia emateko prozedurari ekin zitzaion. Herrialdeetako lehendakariak eta Lanku Kultur Zerbitzuak lehenik, eta Euskal Herriko elkarteke saileko

ordezkariek ondoren, beren egitasmoen berri eman zuten.

Gero(r)a mugitzen, 2018-2030

2018tik zerbait azpimarratu bada, barrura begiratzeko urtea izan dela da. Bertsozale Elkartearen gogoeta estrategikoa gauzatu da hainbat fasetan eta, azken atala bada ere, elkartearen egiturari dagokiona, orain arteko bidearen emaitza den *Gero(r)a mugitzen, 2018-2030* dokumentua aurkeztu zen Batzar Nagusian.

Ondorioetako batzuk aurkeztu zituzten elkarteke zuzendaritzako kide diren Igor Elortzak, Maialen Lujanbiok eta Miren Artetxek. Laster helaraziko zaie honen inguruko informazioa batzarrean izan ez ziren bazkideei.

Besteak beste, Bertsozale Elkartearen jarduerak, euskalgintzan bai, baina, batez ere, kulturgintzan kokatu beharko lukeela ondorioztatu da. Bestalde, bertsolaritza bere osotasunean parekide izan dadin eragiteko ardua duela berretsi zen, eta elkarteak eredu izan behar duela berdintasun politikan.

Bazkideen ordainketa, maiatzaren hasieran

Urtero moduan, maiatzaren hasieran bideratuko da kuotaren kobratzea. Norbanakoek 60 euro ordainduko dituzte; eta elkarte laguntzaileek, 120 euro.



Gogoeta estrategikoaren ondorioak ere aurkeztu ziren. / XDZ



JULIO SOTO EZKURDIA

Iruña, 2019-III-23

Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapelduna

Doinua: : Ez da uste bezain zaila

Ez da uste bezain zaila zoriona aurkitzea besteei pakea eman zein norberak sentitzea. Baldintza derrigorra da orainean gelditzea burua atzoan edo geroan ez ipintzea. Nahiz gertatu gozatzea bezelaxe sufritzea ondoan norbait sortzea ondoan norbait hiltzea; Nahiz gertatu gozatzea bezelaxe sufritzea bere poz eta bere min ederra da bitiztea.

Maiatzaren 4an hasiko da Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasea

Udazkenean hasiko da 2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Aurretik, ordea, hitzordu garrantzitsua dugu bertsozaleok: Gipuzkoa Bertsotan, txapelketarako sailkapen fasea.

Sailkapen fase bat baino gehiago da Gipuzkoa Bertsotan. Gipuzkoan bertsolaritzak bizi duen osasunaren isla da, besteak beste, bertso eskolatan, hezkuntza arautuan, plazetan zein lehiaketa eta sariketetan bizi dugun emankortasunaren erakuslea.

Maiatzaren 4tik 25era, 14 saio izango dira Gipuzkoan barrena. Antolaketan 11 lagun, 15 gai-jartzaile, 18 epaile, 3 idazkari eta 84 bertsolari izango dira. Horiek guztiek jarriko dute Gipuzkoa bertsotan.

84 bertsolariak bi multzotan banatuko dira eta multzo bakoitzean 7 saio jokatuko dira. 7 saioak jokatu ondoren, multzo bakoitzean puntuazio altuena duten 17 bertsolariek eskuratuko dute irailean hasiko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa parte hartzeko txartela. 34 bertsolari horiei dagoeneko sailkatuta dauden 14 bertsolariak batuko zaizkie.



14 saio jokatuko dira Gipuzkoa Bertsotan sailkapen saioan. / XDZ

Maiatzaren 10ean egingo dira Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

Azken urteetan egin bezala, Amasa-Villabonako Subijana etxean egingo dira aurten ere Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak.

Maiatzean egingo dira aurten Xenpelar Dokumentazio jardunaldiak, hilaren 10ean, Amasa-Villabonako Subijana etxean.

Teknologia berriei esker, hainbat gunetan digitalizatuta dagoen ondarea bilaketa bakarrean eskaintzeko aukerak sortu

dira. Aurtengo jardunaldietan erabiltzaileei bilaketa bakarra eskaintzea helburu duten esperientziak ezagutarazi nahi dira, maila estrategikoan zein teknikoan emandako pausoak partekatzeko. Besteak beste, Liburubila, Artium edota bilketa.eus egitasmoetako arduradunek parte hartuko dute.



Esperientzia desberdinak ezagutaraziko dira jardunaldietan. / XDZ

Bertsolamintza jardunaldiak egingo dira bertsozaintzari buruzko gaiak jorratzeko

Maiatzaren 4an izango da lehenengo jardunaldia eta ekainaren 1ean biribilduko da azkenarekin; bertsozaintzari buruzko gaiak landuko dira bost saiotan.

Mamitsu datoz Bertsolamintza jardunaldiak. Urte batzuk eta gero berriro antolatuko dira aurten -1994an, 2002an eta 2011an antolatu ziren- eta bertsozaintzari buruzko gaiak jorratuko dira ikuspuntu desberdinetatik.

Guztira bost jardunaldi egingo dira, bakoitza leku desberdinean. Maiatzaren 2an Sustrai Colina eta Amaia Agirre izango dira Iruñan, Zaldiko Maldikon. Maiatzaren 16an, berriz, Senpereko Larraldea Bertsozaintzaren Lagunak elkartearen egoitzan egingo da jardunaldia Amets Arzallusekin eta Miren Artetxeekin. Maiatzaren 22an mahai-ingurua egingo dute Bilboko Bira Kulturgunean. Maider Arregi, Jokin Bergara eta Joanes Illarregi parte hartuko dute Ane Zuazubiskarren gidaritzapean.

Biharamunean, maiatzaren 23an, Gasteizera egingo du salto Bertsolamintzak. Maite Berriozabal eta Xabier Aierdi ariko dira Amaia Zentroan, Ainhoa Aizpurua aurkezlearekin batera. Lau jardunaldiak izango dira 18:30ean.

Guztiaren laburpena ekainean

Ekainaren 1ean egingo da azken jardunaldia, aurrekoak barnebilduko dituen. Amasa-Villabonan izango da, 9:00etan hasi eta 14:00ak arte. Aurrekoetan egondako parte hartzaile ia denak izango dira bertan, baita beste batzuk ere.

Egitarau osatua eta informazio osoa www.mintzola.eus atarian topatuko duzue laster.



Zortzi urte eta gero aurten egingo dira berriro Bertsolamintza jardunaldiak. / XDZ

Ahozko kultur sorkuntzaren ikerketa sustatzeko deialdiak, martxan

Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak gauzatzen dugu deialdia, eta horiez gain, UPV/EHUko Ikerketaren eta Euskararen Arloko Errektoreordetzek ere babesten dute.

Martxan daude ahozko kultur sorkuntza ikertzeko deialdiak. Bertsolamintza ez ezik, antzerkigintza, kantagintza, kontalaritza edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat aztertzeko asmoa duten proiektuak hartuko dira aintzat aurtengo ikerketa deialdietan. Batetik, bi proiektu sari izango ditugu eskaintzeko; bestetik, ikerketa kontratu bat.

2.000 euroko dirulaguntza lortu ahal izango dute aipatutako kultur sorkuntzak aztertzeko xedea duten lan monografikoek eta master amaierako lanek; bi sari eskainiko dira. Proiektu sari hauen helburua da "ikertzaile gaztea edo hasiberria doktorego tesiraino eramango duen ibilbidean laguntzea" eta gerora horrek ekar lezakeen doktorego tesirako bulkadan eragitea.

Eta, hain zuzen, doktorego tesia egiteko asmoa duten ikertzaileentzako da aipatutako beste deialdia. Doktorego aurreko kontratu bat finantzatuko da, UPV/EHUUn gauzatuko dena. Aukeratutakoak doktorego aurreko urtebeteko kontratua lortuko du, hiru urte gehiagorik lortzeko modukoa.

Maiatzaren 3ra arte

Bi deialdietarako eskariak 2019ko maiatzaren 3ra arte aurkeztu ahal izango dira. Eskaria bideratzeko prozedura eta xehetasunak atari honetan bertan edota UPV/EHUko Mikel Laboa Katedraren atarian topatuko dituzue.



Puntu jarrita

IZARNE ZELAIA ARRATIBEL

Aupa, Pello: Behin utzi ondoren, bat plazara nolatan itzultzen den galdetzen didazu. Utzi izanaren faktore eragileak ulertzea izan zen jendaurrean berriro hasteko klabea. Izan ere, sekula ez nuen kontzienteki erabaki jendaurrean bat-batean aritzeari uztea. Gipuzkoako eskolarteko txapelketan eta pare bat gazte sariketatan parte hartu ondoren, esango nuke unibertsitate garaian bertso eskolako talde finko bat ez izateak nire buruarengan konfiantza gutxiago izatea eragin zidala. Ikasketak bukatutakoan batean eta bestean ibili izan nintzen bertso eskolatan eta noizean behin gertuko saio informalean batean kantatu izan nuen, baina orokorrean bertso saioak edo txapelketak hitz potoloegiak ziren niretzat.

Batek baino gehiagok pentsa dezake nire gazetako konplexuek zein interes ote duten Bertsozaleari zutabe bat jateko. Neronek ere nire bizipen pertsonalak zirela uste izan nuen, nire segurtasun falta, nire zurian geratzeko ikara, nire nigan sinesteko ezina, nire... beste neska gazte askori gauza bertsua gertatzen zitzaizaienaren kontzientzia hartu nuen arte. 2014ko bertso egunean sentitu nuen kolektibo horren parte nintzela: afalostean "Zergatik Wally?" animazioa proiektatu zuten (bertsoa.eus-en duzue ikusgai), eta bertan azaltzen zuten gaur egun Bertsozalearen Azterketa Soziologikoak berresten duena: 18 urtera arte neska-mutilen kopurua nahiko parekoa bada ere, hortik aurrerako urteetan neska* sistematikoki hasten dira plazatik desagertzen. Bideoa ikusi eta pentsatu nuen: "aiba, ni horietako bat naiz!". Beraz, bizipen pertsonalak izanik ere, kolektiboan eragina dute.

Orain baina, fokua, bat nolatan itzultzen den jakitean baino, beste norantza batean jarriko nuke: ez dakiela gaurko haur eta gaztetxoek bertso eskolatan dabilzan neskei* gauza bera gertatu. Har ditzagun neurriak desagertze ez daitezela. Eta plazan irauteko zer osagai behar diren jakiteko, zer hoberik bertsolari gazte bati bere bizipenez galdetzea baino.

Maidar Arregirentzat beraz, hurrengo galdera: nola bizirauten du batek plazan?

Koplak

Hitzetik Hortzeraren denboraldiaren amaiera

Apirilaren 7an amaitu genuen denboraldi honetako Hitzetik Hortzera, Jon Lopategiri eskainitako atalarekin. Jaialdi eta bertso-otorduez gain, Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako Txapelketak izan ditugu Hitzetik Hortzeran. Bukatu orduko hasi gara hurrengo prestatzen eta irailean bueltan izango da Hitzetik Hortzera, ahal bada, bertsozalearen kolore eta forma gehiagorekin.

Poto-Finixa



Zabalik dago Udako Ikastaroetan izena emateko epea

Mintzola Ahozko Lantegiak antolatuta, *Euskal Kulturari so*. Bertsozalearen artikulazioak UPV/EHUko Udako Ikastaroa abuztuaren 22an eta 23an egingo da Donostiako Miramar Jauregian. Josu Amezaga, Iratxe Retolaza, Harkaitz Zubiri, Jon Maia, Oihana Iguaran, Miren Artetxe eta Alberto Irazu arituko dira hizlari. Bertsozale Elkartearen bazkideok prezio erdian egiteko aukera izango dugu maiatzaren azken astea orduko eginez gero (gordetako kopurua amaitu arte). Eskaria ikerkuntza@bertsozale.eus helbidean egin behar da.



- 14 SORTZAILE JOLASEAN
- Igor Elortza-Joseba Sarrionaindia
 - Uxue Alberdi-Danele Sarriugarte
 - Julio Soto-Gorka Urbizu
 - Nerea Ibarzabal- Eneko Sagardoy
 - Andoni Egaña-Ruper Ordorika
 - Onintza Enbeita- Maite Berriozabal
 - Manex Agirre- Ilaski Serrano

PUBLIZITATEA